



ACT-MC-2019/0029

**KONTRATAZIO-MAHAIAREN AKTA**  
**BI ZENBAKIKO ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"**

Espediente zbkia: 5-O-28/2018

Kontratuaren xedea eta gai-zerrenda: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ERREPIDE SAREKO EGITURETAN ETA EZPONDETAN JARRITA DAUDEN AINGURAKETAK IKUSKATZEA ETA KONTROLATZEA. (5-O-28/2018). 2. Artxibo elektronikoak irekitzea.

Eguna: 2019ko maiatzaren 17a

Hasiera /amaiera ordua:13:00/13:15

Tokia: Bide Azpiegiturako Departamentuaren 0.6 gela (Miramon pasealekua, 166.)

**Bertaratutakoak:**

**Lehendakaria:** Iñigo Zufiria Zatarain, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua.

**Bokalak:**

Agustin López-Dóriga Fernández, Bide Azpiegituren Obreetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua (lehendakariordea eta 1.bokala).

Maidier Apaolaza Lizarazu, Bide Azpiegituren Bigaitze eta Berrikuntzako Zerbitzuko ITOPa.

Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

Itziar Aristondo Fernandez, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuko burua.

**Idazkaria:** M<sup>a</sup> Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren ordezkaria.

Ekintza honetarako mahaiburuak M<sup>a</sup> Carmen Delgado Vallejo izendatu du idazkari bezala, administrazio-klausula partikularren agiriko 24. baldintzak dionaren arabera.

2019ko apirilaren 30ean lehenengo artxiboak ireki ziren. Egintzan kontratazio-mahaiak erabaki zuen Ingek eta Typsa enpresei errekerimendua bidaltzea kaudimen teknikoak justifikatzeko. Emandako epean, biek erantzun dute eta ontzat eman da.

Gaur, 2019ko maiatzak 17, goian aipatutako lekuan eta orduan, aurrez adierazitako kideekin, Kontratazio Mahaia eratu da lizitazioan aurkeztutako bigarren artxibo elektronikoak irekitzeko: **BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**. Kontratazio honen administrazio-klausula partikularren agirian ezarri den bezala, balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera eman behar da haztapena, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak baitira. Ekintza honetan egiaztatuko da aurkeztutako eskaintzek agirian ezarritako irizpide guztiak sartu dituztela.

Behin izendapena eginda irekitze elektronikoaren saiakera egin da, baina ezinezkoa izan da izan ere, arazo teknikoak izan dira IZENPEekin (ziurtagirien zerbitzuen mailegatzailea), beraz, mahaiburuak amaitutzat eman du ekintza. Behin arazoak konponduta irekitze deialdi publiko berria egingo da.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2019ko maiatzaren 17an

MAHAIBURUA,

Sin. Iñigo Zufiria Zatarain

IDAZKARIA, ordezkapenez

Sin. M<sup>a</sup> Carmen Delgado Vallejo